

## **IV. LOMEÑA FACHADAS + RHENUS LOGISTICS Bidasoako Maratoi Erdia + 10K**

### **ARAUDIA**

#### **AURKIBIDEA**

[1. Artikulua- Informazio orokorra](#)

[2. Artikulua- Parte hartzeko baldintzak](#)

[3. Artikulua- Gehieneko denbora, erbiak eta irteera](#)

[4. Artikulua- Izen-Emateak](#)

[5. Artikulua- Dorsalak eta Korrikalariaren poltsa](#)

[6. Artikulua- Zirkuitua](#)

[7. Artikulua- Hornidura puntuak](#)

[8. Artikulua- Dutxa, arroparen zaintza eta aparkaleku zerbitzuak](#)

[9. Artikulua- Mediku-laguntza](#)

[10. Artikulua- Sailkapenak eta sariak](#)

[11. Artikulua- Deskalifikazio-arrazoiak](#)

[12. Artikulua- Parte-hartzaileen eskubideak](#)

[13. Artikulua- Parte-hartzaileen aseguruak](#)

[14. Artikulua- Beste gogoeta batzuk](#)

[15. Artikulua- Irudi-eskubideak eta datuen lagatzea](#)

[16. Artikulua- Informazio grafikoa](#)

## **1. ARTIKULUA- INFORMAZIO OROKORRA**

**SUPER AMARA Bidasoa Atletiko Taldeak**, Irungo eta Hondarribiko Udalen laguntzarekin, **Lomeña Fachadas Rhenus Logistics Bidasoako Maratoi erdiaren + 10K** laugarren edizioa antolatuko du, 2027ko otsailaren 28ko igande goizean.

Irteera **igandean, goizeko 9:50etan** izango da 10K lasterketarako eta 10 minuto geroago goizeko **10etan**, maratoi erdiko irteera. **Kolon pasealekuan** dagoen irteera-puntutik. Helmuga, **Urdanibia** plazan izango da, Ibilbidea Hondarribiko herritik igaroko da.

Maratoi erdia II. mailako egutegi nazionalean sartuta dago. 10K-ko lasterketa ordea, egutegi autonomikoan.

**Edizio honetan, berriz, ENPRESEN LASTERKETA egingo dugu, SMARKTEC-ek babestua.**

Enpresa bereko 3 pertsonako taldeek parte hartuko dute, bakoitza banaka korrika eginez, eta sailkapen nagusia taldeko 3 kideen denboren batuketaren arabera egingo da. Bi distantzietan egingo da (erdi maratoia eta 10k), eta 3 kategoria egongo dira: gizonezkoak, emakumezkoak eta mistoak.

## **2. ARTIKULUA- PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Lasterketa honetan nahi duenak parte hartu ahal izango du, kategoria, sexu, genero edo nazionalitate bereizketarik gabe, atleta federatua izan ala ez. Maratoi erdian parte hartu ahal izateko gutxieneko adina, lasterketaren egunean 16 urte beteta izatea izango da eta 14 urtekoa 10 kilometroko lasterketan parte hartzeko.

Parte-hartzea **maratoi erdian 2400 parte-hartzaileran** eta **10 kilometrokoan 800 parte-hartzaileran** mugatuta izango da.

Parte hartzaile bakoitzak bere erantzukizun osoz parte hartuko du lasterketan eta irteera-lerroan mota honetako probei aurre egiteko behar den maila fisikoarekin aurkeztu beharko da.

## **3. ARTIKULUA- GEHIENEN DENBORA, LASTERKETAKO ERBIAK ETA IRTEERAREN ANTOLAKETA**

Maratoi erdia 2h30eko gehieneko denboran burutu beharko da, 1h10, 10 kilometroko lasterketaren kasuan.

### **IGAROTZE-DENBORAK**

<b>5en Km.</b>	35min
<b>10en Km.</b>	1h10
<b>15en Km.</b>	1h45
<b>20en Km.</b>	2h20
<b>Helmuga</b>	2h30

Korrikalari guztiak igarotze-denborak nahitaez bete beharko dituzte. Bestela, antolakuntzak dagozkion neurriak hartu ahal izango ditu lasterketaren iraupena alde aurretik planifikatutakoa baino luzeagoa izan ez dadin.

## ERBIAK LASTERKETAN

Antolakuntzak erritmo ezberdinetan ibiliko diren erbiak jarriko ditu parte-hartzaileen eskura, hauek 1h20 eta 2h00 arteko helburuak lor ditzaten. Erbiak kolore desberdinetako banderatzok eramango dituzte gainean, non eramango duten erritmo idatzita egongo da, parte-hartzaileentzat erreferentzia izango dena.

Erritmo hauetarako erbiak egongo dira eta bakarrik maratoi erdirako izango dira aurtan:

-	1h20	3:45eko erritmoa, banderatzok gorria
-	1h25	4:00eko erritmoa, banderatzok laranja
-	1h30	4:15eko erritmoa, banderatzok beltza
-	1h35	4:30eko erritmoa, banderatzok horia
-	1h40	4:45eko erritmoa, banderatzok arrosa
-	1h45	5:00eko erritmoa, banderatzok berdea
-	1h50	5:15eko erritmoa, banderatzok urdina
-	2h00	5:45eko erritmoa, banderatzok morea

## IRTEERAREN ANTOLAKETA

Lehenengo irteeran, 10k – takoa, 5 irteera-eremu izango dira:

CAJÓN	TIEMPO
	< 38min
	38 min eta 42min30 artean
	42min30 eta 47min30 artean
	47min30 eta 52min artean
	> 52min

Bigarren irteera, Maratoi Erdikoa, 10 minuto beranduago izango da, eta 5 irteera-eremu berberak erabiliko ditugu:

CAJÓN	TIEMPO	ERBIAK
	< 1h20	
	1h20 eta 1h30 artean	1h20 eta 1h25
	1h30 eta 1h40 artean	1h30 eta 1h35
	1h40 eta 1h50 artean	1h40 eta 1h45
	> 1h50	1h50 eta 2h00

Antolakuntzak jarritako erbiak, irteeran bakoitza bere irteera gunean ipiniko da, korriko duten erritmoaren arabera.

Bi lasterketen korrikalarietarako, irteera eremu bat esarriko diogu inskripzioan jarritako denboraren arabera. Antolakuntzak jarritako datuak kontrastatu ditzake eta horren arabera, korrikalariak gure iritsiz merezi duen irteera eremuan jarri ditzakegu.

Atletak lasterketa hasiera baino 5 minuto lehenago gehenez, bere irteera-eremuan egotea eskatzen dugu.

#### **4. ARTIKULUA- IZEN-EMATEAK**

Izen-emateak <http://www.mediamaratondelbidasoa.com> webgunean, **2026ko apirilaren 30an** irekiko dira eta epea **2027ko otsailak 26an, 13:00etan** amaituko da. Urtarrilaren 31a baino lehen izena ematen dutenentzat, dortsalean aukeratutako izena agertuko da. Izen-emateak edozein kasutan gehieneko parte-hartzaile kopurura iritsi bezain laster itxiko dira (2400, 21K eta 800, 10K). **Probaren egunean bertan, irteera gunean izena emateko aukerarik ez da izango.**

Aurrez aurre izena eman nahi dutenek Bidasoa Atletiko Taldearen bulegoetan egin ahal izango dute, Leandro Agirretxe plazako 1 zenbakian, 2. solairuko 8en bulegoan, 9:00etatik 14:00etara. ([Palmera Montero Gunea](#)).

#### **SMARKTEC ENPRESEN LASTERKETAN izena emateko modua:**

Taldeko 3 kideek banaka eman behar dute izena. Behin kide guztiak izena emanda daudenean, enpresako giza baliabideen departamentutik email bat bidali behar da helbide honetara: **eventos@atletismobat.com**, eta honako datu hauek adierazi behar dira: enpresaren/taldearen izena, parte hartuko den distantzia (10K edo erdia) eta taldeko kideen izenak.

**Itzulketa-politika:** Azkenean parte hartu ezingo dutenek izen ematearen titulartasuna aldatu ahal izango dute. Titulartasun aldaketa ekitaldiaren webgunean prestatutako Parte-hartzailearen Gune Pribatuan, otsailaren 26ko 13:00ak arte egin ahal izango da. Izen ematearen zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko, eta ez dugu dortsala gordeko hurrengo ediziorako (Ezeztapen-asegurua kontratatu ez bada izan ezik). Hori bai, maratoi erdian izena emandakoak, bere dortsala 10K-ko lasterketarako aldatzea eskatu ahal izango dute.- **Distantzia aldatzeko azken eguna otsailaren 14a izango da, data horren ondoren egindako aldaketetan jada inprimatuta eta pertsonalizatuta dagoen dortsala galtzen baita.** Aldaketa horrek ez du inolako kosturik izango, baina aldi berean, tarifen arteko aldea balego ez litzateke itzuliko. Aldaketa hori egiteko, mezu elektronikoko bat bidali beharko da eventos@atletismobat.com helbidera, izena emanda dagoen titularrak adieraziz eta aldaketa eskatuz.

Izen ematean, 5,00 €-ren truke itzulketa-bermea kontratatzeke aukera egongo da. Berme horrek izen-ematearen zenbatekoaren %100 itzultzea bermatzen du urtarrilaren 11ra arte; data horretatik aurrera eta otsailaren 14ra arte, hurrengo ediziorako gordetzeko aukera eskainiko da. Otsailaren 14tik aurrera eta otsailaren 26ko ostiraleko 13:00ak arte, dortsala beste parte-hartzaile bati lagatzeko aukera egongo da, aldaketa Parte-hartzailearen Gune Pribatuan eginez.

Itzulketa-bermea ezinbestekoa da izen-ematea formalizatzen den unean kontratatzea. Berme horren zenbatekoa ez da inolaz ere itzuliko. Diru-itzulketa gauzatzeko, izen-ematearen titularrak eskatu beharko du, eventos@atletismobat.com helbidera mezu elektronikoko bat bidaliz, honako datuak adierazita: izena, abizenak, NANA eta izen-ematean agertzen den eskaera-zenbakia.

Erabat debekatuta dago dortsal baten lagapena edo salmenta egitea izen-emate plataformaren edo antolakuntzaren bidez egin gabe. Edozein zalantza edo kontsultarako (eventos@atletismobat.com).

Izen-ematearen prezioak %21eko BEZa barne hartzen du, eta ordaintzen den unearen arabera aldatzen da, ondoko taulan adierazten den bezala:

MARATOI ERDIAN INSKRIBATZEKO EPEAK	MARATOI ERDIKO TARIFAK
200 lehen inzkripzioak	24€ (+borondatezko dohaintza solidarioa)
500. inskripziora arte	29€ (+borondatezko dohaintza solidarioa)
1500. inskripziora arte edo azaroaren 16ra arte	34€ (+borondatezko dohaintza solidarioa)
Kuota generala dortsalak agortu arte (2400)	39€ (+borondatezko dohaintza solidarioa)

Maratoi erdiko izen-emate tarifa guztietan barne dago Real Federación Española de Atletismo-ren eguneko lizentzia, 3 €-ko kostuarekin. Real Federación Española de Atletismo-k emandako atletismoko lizentzia nazionala duten atletek bakarrik deskontatu ahal izango dute zenbateko hori, beren lizentzia nazionala

sartuta (probaren egunean indarrean egon beharko duena). Itzulketa hori ekitaldiaren aurreko astean egingo da, lizentzien baliozkotasuna Real Federación Española de Atletismo-ren bidez egiaztatu ondoren. Ez dira onartuko beste diziplina batzuetako lizentziak (triatloia, etab.), ezta beste federazio nazional batzuetakoak ere.

Maratoi erdiko korrikalari leialenek deskontuak izango dituzte izen-ematearen prezioan (8 ediziotik 8 bukatuta; 8tik 7 eta 8tik 6, hurrenez hurren %100, %40 eta %20ko deskontuarekin izen-ematearen prezioan). Korrikalari hauek mezu elektronikoa bat edo SMS bat jasoko dute beren mugikorrean, deskontuarekin izena emateko jarraibideekin.

10K INSKRIBATZEKO EPEAK	10K-KO TARIFAK
150 lehen inskripzioak	19€ (+borondatezko dohaintza solidarioa)
Kuota Generala, urtarillaren 27-ra arte	23€ (+borondatezko dohaintza solidarioa)
Azken inskripzioak (otsailaren 1-tik aurrera)	27€ (+borondatezko dohaintza solidarioa)

Halaber, 10 parte-hartzaile edo gehiagoko taldeentzat eta probako egunean 23 urtetik beherakoentzat promozioak egongo dira (indarrean dagoen tarifaren %20ko deskontuarekin, bai maratoi erdian bai 10K proban).

Deskontu horietara sartzeko, mezu elektronikoa bat bidali beharko da [eventos@atletismobat.com](mailto:eventos@atletismobat.com) helbidera dagokion deskontua eskatuz, eta NANaren argazkia erantsiz 23 urtetik beherakoentzat deskontuaren kasuan, korrikalariaren adina egiaztatuz.

Ezinbestekoa da formularioan datu guztiak behar bezala betetzea, besteak beste NAN edo pasaportearen zenbakia, harremanetarako telefono zenbakia, korrikalariaren jatorrizko herria edo lizentzia zenbakia (nazionala, autonomikoa edo lurraldekoa) atletismoan federatuta egonez gero. Izen-emate formularioan datu faltsuak ematea deskalifikazio-arrazoia izango da.

Bidasoa Erdiko Maratoiaren edizio honetan motibo solidario bat gehitu dugu:

2027an, dohaintza Mi Dulce Guerrero contra la Diabetes Tipo 1 elkarreentzat izango da, hau da, 1 motako diabetearen edo haurren diabetesaren aurkako elkarreentzat. Bere helburu nagusia dirua biltzea da, guztiz ikerketara bideratzeko, sendabide bat aurkitu ahal izateko.

Gainera, egunean 24 orduz kudeatzea hain zaila den gaixotasun larri eta kroniko honi ikusgarritasuna ematen diogu, eta aldi berean, ikastetxeetan eskola-erizainaren figura ezartzea aldarrikatzen dugu. Dohaintza egiten duen korrikalari bakoitzak emandako zenbatekoaren %100 proiektu honetara bideratuko da.

## **5. ARTIKULUA- DORTSALAK ETA KORRIKALARIAREN POLTSA**

Dortsala eta korrikalariaren poltsa Korrikalariaren Azokan jaso ahal izango dira, Zabaltza Plaza-n, otsailaren 27ko larunbatean, 10:00etatik 20:00etara.

Eguraldi txarra izanez gero, Korrikalariaren Azokaren kokapena aldatu ahal izango da, baina beti ere korrikalari guztiei nahikoa aurrerapenez jakinaraziko zaie.

Korrikalariaren Azokan jaso ez diren dortsalak probako egunean bertan jaso ahal izango dira, otsailaren 28an, Frontón Uranzu-n, 8:15etik 9:30era.

Kokapena ikusteko, esteka hau erabil daiteke: [ibilbidea](#)

Dortsala jasotzeko, izena ematearen egiaztagiria, bai formatu digitalean, bai paperean inprimatuta aurkeztu beharko da. Egiaztagiri hori izena ematerakoan baliatutako posta elektronikoan jasoko du parte hartzaileak, nahiz eta [Izen-emateak Egiaztatzeko Eremuan](#) uneoro bertsio eguneratua deskargatzeko aukera izan.

Izena ematearen egiaztagirian QR kode bat agertzen da. Dortsala jasotzerakoan kode hau eskaneatuko da. Dagokion egiaztagiria aurkeztuz, beste parte hartzaile baten dortsala eta poltsa jaso ahal izango dira. Izena ematearen egiaztagiria aurkezten ez bada, parte hartzailearen dortsala eta poltsa, NANA edo argazkidun nortasun-agiri bat aurkeztu ondoren, dortsalaren jatorrizko titularrari bakarrik emango zaio.

Korrikalariaren poltsak dortsal txip-a (Urtarrilak 31a baino lehen izena-ematen dutenentzat dortsalean bere izena ageriko da), kateorrazak, eta lasterketaren kamiseta teknikoak, izango ditu barne. Berreskuratzeko produktuak eta gure laguntzaileen hainbat opari, lasterketa amaitzean, helmugan, banatuko dira.

## **6. ARTIKULUA- ZIRKUITUA**

Bi ibilbideak, bai maratoi – erdia eta baita 10K –koa RFEA-ren homologazioa izango dute eta trafikoari itxita egongo dira. Maratoi erdia II mailako egutegi nazionalean dago; beraz, probaren egunean indarrean dagoen Real Federación Española de Atletismo-ren lizentzia duten atleta federatuen markek balioa izango dute ranking, errekor eta gutxienekoen arloan.

10K lasterketa Euskal Herriko egutegi autonomikoan dago; beraz, probaren egunean indarrean dagoen Euskadiko lizentzia duten atleta guztien markak ofizialak izango dira rankingari begira.

Horretarako, kirolari federatuek bere klubaren ekipazioarekin korritu behar dute eta RFEA eta EAF -ren kompetizio arautegiak orokorrean bete.

Zirkuituaren eta gune logistikoei buruzko informazio guztia esteka honetan aurki daiteke: [MAPA](#)

Gipuzkoako Federazio-ko epaileak izango dira lasterketen kontrolaz eta indarrean dagoen araudia betearazteaz arduratuko direnak.

Ibilbide osoan zehar bai puntu kilometrikoak, bai zerbitzu desberdinak, hala nola hornidura-postuak, komunak, zerbitzu medikoak, dortsalak jasotzeko puntua, kontsigna-zerbitzua, dutxak, etab. argi eta garbi seinaleztatuta egongo dira. Nolanahi ere, lasterketaren ibilbidea eta zerbitzu guztien kokapena honako esteka honetan aldeztatik kontsultatzea gomendatzen da: [MAPA](#)

Lasterketa amaitzean, dopin-kontrolak egin ahal izango zaizkie Gobierno Vasco-k eta/edo Agencia Española de Protección de la Salud en el Deporte erakundeek izendatutako parte-hartzaileei.

Parte-hartzaile guztiei gogorarazten zaie dopin-kontrola egiteari uko egiteak automatikoki deskalifikazioa ekarriko duela ondorio guztietarako. Sari ekonomikoa lortzen duten parte-hartzaileek ez dute ordainketarik jasoko dopin-kontrolaren emaitzak antolakuntzaren esku egon arte.

Emaitzaren bat positiboa izanez gero, dagozkion kontrako analisiak egingo dira, eta hauek ere positiboak badira, parte-hartzaile horri edozein sari (diruzkoa zein bestelakoa) jasotzeko eskubidea kenduko zaio.

## **7. ARTIKULUA- HORNIDURA PUNTUAK**

5 hornidura-puntu jarriko dira korrikalarien eskura, 2 10K lasterketarako, gutxi gorabehera 3,2 – 7,5 – 11,8 – 14,9 (3,8 10K-rako) eta 19,1 (8 10K-rako) kilometroetan gutxi gorabehera. Era berean, helmugan hainbat postu egongo dira eta bertan parte-hartzaile guztiek hornidura osoa jasoko dute.

Hurrengo estekan beste informazio askoren artean, hornidura-postuen kokapen zehatza ikus daiteke: [MAPA](#)

## **8. ARTIKULUA-DUTXA, ARROPA ZAINZA ETA APARKALEKU ZERBITZUAK**

Dutxak eta aldagelak helmugatik gertu kokatuta dagoen [Uranzu pilotalekukoak](#) izango dira, [Arataleku](#) eta [Azken Portuko](#) kiroldegietan dutxatzeko aukera izango da ere bai.

Arropa uzteko zerbitzua Uranzu pilotalekuan, non dutxak eta aldagelak kokatuak dauden, egongo da. Motxilak goizeko 8:30etan biltzen hasiko dira. Kontsigna-puntuaren kokapen zehatza esteka honetan aurki daiteke: [MAPA](#)

Dortsalari atxikita, motxila identifikatzeko dortsaletik bereizi beharko den zinta itsasgarri bat egongo da. Motxiletan balio-elementuak bai eta manipulazioan hautsi daitezkeen elementu hauskorak ez uztea eskatzen da.

Autoz joan behar direnentzat, Ficobako parkinean kotxea uztea gomendatzen dizugu. Era berean, irteeraren eta helmugaren inguruan, Kolon pasealekuko, San Juan plazako eta Pio XII.aren plazako ordainpeko parkinak daude. Hauen kokapena honako esteka honetan ikus daiteke: [MAPA](#)

## **9. ARTIKULUA- MEDIKU-LAGUNTZA**

Ibilbidean zehar mediku-laguntza egongo da. Helmugan ere laguntza medikoa egongo da. Antolatzaileek probaren aurretik korrikalariei azterketa mediko bat egitea gomendatzen die. Edonola ere parte-hartzaile guztiek kirol-jardueratik eratorritako arriskua onartu beharko dut. Medikuzerbitzu ofizialak lasterketatik parte hartzaile bat erretiratzeko ahalmena izango du, bere ustez, korrika jarraitzeko baldintza fisiko edo psikikoetan betetzen ez badira. Medikuzerbitzuen kokapen zehatza honako esteka honetan kontsulta daiteke: [MAPA](#)

## **10. ARTIKULUA- SAILKAPENAK ETA SARIAK**

Probaren egunean, lasterketaren webgunetik, <http://www.mediamaratondelbidasoa.com>, emaitzak zuzenean jarraitu ahal izango dira.

Sailkapenean agertu ahal izateko, dortsala maratoni erdikoa edo 10K-koa den hartuko da kontuan. Dagokien distantzia osatzeko bitarteko alfonbra guztietatik igaro beharko dute korrikalariek. Derrigorrezkoa izango da [3.en artikuluan](#) ageri diren bitarteko eta helmugako denborak betetzea.

Sailkapenak lasterketan emandako denbora GORDINAren arabera egingo dira. Hau da, irteeratik korrikalaria helmugako kronometrajetik igaro arte igarotako denbora. Korrikalari bakoitzak emandako denbora NEROa ere emango da, baita 5, 10, 15, 20 kilometroetan eta helmugan denbora partzialak ere.

### **SAILKAPENAK**

10K eta 21K-ko lasterketan bereiztutako sailkapenak egongo dira. 10K-ko lasterketak gizon eta emakumeentzat sailkapen orokorra izango ditu. Maratoi erdiak aldiz, gizonezkoen eta emakumezkoen sailkapen orokorraz gain maila ezberdinetarako sailkapenak izango ditu:

MAILA	GIZONEZKOAK	EMAKUMEZKOAK
23 URTEZ AZPIKOA	2005/01/01etik 2011/02/27ra	2005/01/01etik 2011/02/27ra
MASTER 45 +	1982/02/28 baino lehen jaioak	1982/02/28 baino lehen jaioak

### **SARIAK**

**MARATOI ERDIA: Lehen bostek eta 23 urtez azpiko eta Master 45+ mailetako lehen sailkatuek jasoko dituzte sariak.**

1. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Txapela + Garaikurra + 600€ eskuan + 300€ eskuan marka hauek egitea lortuz gero 1h05´/1h16´ (mutila/neskak)
2. Gizonezkoak/ Emakumezkoak Garaikurra + 400€ eskuan

- |                               |                          |
|-------------------------------|--------------------------|
| 3. Gizonezkoak/ Emakumezkoak  | Garaikurra + 250€ eskuan |
| 4. Gizonezkoak/ Emakumezkoak  | Garaikurra + 150€ eskuan |
| 5. Gizonezkoak / Emakumezkoak | Garaikurra + 100€ eskuan |

Maratoi erdian, maila ezberdinetan sariak jasotzeko hautagai diren korrikalariak, sariak metatzeko aukera izango dute.

- |                                    |                                       |
|------------------------------------|---------------------------------------|
| 1 Gizonezkoak / Emakumezkoak sub23 | Garaikurra + 50€ Deportes Gonzalezen  |
| 1 Gizonezkoak / Emakumezkoak 45+   | Garaikurra + 50€ Deportes Gonzalez-en |

**10K: 10 kilometroko lasterketaren lehen hirurek jasoko dute garaikurra.**

- |                              |                                       |
|------------------------------|---------------------------------------|
| 1. Gizonezkoak/ Emakumezkoak | Garaikurra + 100€ Deportes Gonzalezen |
| 2. Gizonezkoak/ Emakumezkoak | Garaikurra + 75€ Deportes Gonzalezen  |
| 3. Gizonezkoak/ Emakumezkoak | Garaikurra + 50€ Deportes Gonzalezen  |

**SMARKTEC 10k enpresa lasterketaren sariak:**

- |                           |  |
|---------------------------|--|
| 1 Gizon / emakume / misto | SMARKTEC Garaikur pertsonalizatua + produkto – sorta |
| 2 Gizon / emakume / misto | SMARKTEC Garaikur pertsonalizatua                    |
| 3 Gizon / emakume / misto | SMARKTEC Garaikur pertsonalizatua                    |

**SMARKTEC 21k enpresa lasterketaren sariak:**

- |                           |  |
|---------------------------|--|
| 1 Gizon / emakume / misto | SMARKTEC Garaikur pertsonalizatua + produkto – sorta |
| 2 Gizon / emakume / misto | SMARKTEC Garaikur pertsonalizatua                    |
| 3 Gizon / emakume / misto | SMARKTEC Garaikur pertsonalizatua                    |

**11. ARTIKULUA- DESKALIFIKAZIO-ARRAZOIAK**

Antolakuntzak parte-hartzaileen jardun ona eta kirol-zintotasuna ditu oinarri; parte-hartzaileek kirol arauak errespetatu beharko dituzte, proba osoa beren ahalegin propioz bakarrik osatuz, eta kanpoko edozein laguntza mota debekatuta egongo da.

Irteeran eta 5 kilometrotik behin helmugaraino denbora kontrolak egongo dira. Parte hartzaile guztiak nahitaez kontrol puntu hauek igaro beharko dituzte.

Honako hauek lasterketatik automatikoki deskalifikatuak izango dira:

- Ibilbide osoa egiten ez dutenek.
- Dorsalaren publizitatea aldatu edo ezkututzen dutenek.
- Beste parte-hartzaile bati esleitutako dortsala edota txipa eramaten dutenek.
- Edizio honetako jatorrizko dortsala eramaten ez dutenentzat.
- Dorsalarik gabe helmugan sartzen direnentzat.
- Epailen, osasun-langileen edo antolakuntzako kideen jarraibideei kasurik egiten ez dutenek.
- Era berean, gogoratu arazten da zirkuituaren barruan ibilgailu motordunak edo antolakuntzatik kanpoko bizikletak erabat debekatuta daudela.
- Izen-ematean datu faltsuak ematea

Debekatuta dago gurpildun edozein elementurekin parte hartzea, baita gurpildun orgak bultzatzea ere, eta ez da baimentzen ibilbidea atletismotik kanpoko beste modalitate batzuetan egitea. Era berean, ez da maskoten laguntzarekin parte hartzea onartzen.

Deskalkifikatutako parte-hartzaileek sarituak izateko aukera guztiak automatikoki galduko dituzte.

## **12. ARTIKULUA: PARTE-HARTZAILEEN ESKUBIDEAK**

Ofizialki izena emanda dauden eta lasterketaren dortsal ofizial eta originalaren bidez hala dela egiaztatzen duten parte-hartzaileek, bularrean jarrita eraman beharko dute, tolestu, aldatu edo manipulatu gabe, eta une oro izango dute eskubidea lasterketako edozein zerbitzuez gozatzeko, bai ibilbidean zehar, bai helmugan, hala nola hornidura, osasun-laguntza eta abar.

Antolakuntzak ez die inolako arretarik edo zerbitzurik emango aurreko baldintza betetzen ez duten pertsoneri edo lasterketan dortsalik gabe edo horrekin faltsututa parte hartzen dutenei, eta lasterketatik kanporatuko ditu, haien presentzia hautemateko unean eskura dituen baliabideen bidez.

## **13. ARTIKULUA- PARTE-HARTZAILEEN ASEGURUA**

Erakundeak erantzukizun zibileko aseguru-poliza bat izango du, indarrean dagoen legediaren arabera. Ofizialki inskribatutako parte-hartzaile guztiek, halaber, istripuen aurkako aseguru-poliza bat izango dute. Poliza horrek proba garatzearen ondorioz gertatzen diren istripuak estaliko ditu, eta inoiz ez ezkutuko pairamen edo tara, zuhurtziagabekeria, zabarkeria, araudiko legeak eta artikulua ez betetzea, bai eta lasterketa egiten den lekura eta handik egiten diren joan-etorrietan gertatzen direnak ere.

## **14. ARTIKULUA- BESTE GOGOETA BATZUK**

Antolakuntzatik kanpoko ezinbesteko arrazoiengatik (ekaitzak, lurrikarak, eraso terroristak, pandemiak, etab.) lasterketa bertan behera gelditzen bada, izen-emateen dirua ez da itzuliko. Kaltetuei hurrengo edizioan izena emateko baldintza onuragarriak eskainiko zaizkie.

Antolatzzaileek aurreikusitako ibilbidea segurtasun-arrazoiengatik uneoro alda dezake. eta, baita ere, proba segurtasun-arrazoiengatik hasi aurretik edo zehar bertan behera uzteko aukera dago, eta horrek ez du antolakuntzaren aldetik inolako kalte-ordain betebeharririk sortuko.

## **15. ARTIKULUA- IRUDI-ESKUBIDEAK ETA DATUEN LAGAPENAK**

Parte hartzaile guztiek, izen-emateagatik, araudi hau ezagutzen eta onartzen dutela adierazten dute, eta baimena ematen dute Bidasoa Atletiko Taldeak informatikoki eta kirol-, informazio-, sustapen- edo merkataritza-izaerako helburu eskusiboarekin bere datu pertsonalak, baita argazkien, bideoen eta abarren bidez probaren barruan duen irudia ere, trata ditzan.

Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, parte-hartzaileak fitxategi horietan sartzeko eskubidea baliatu ahal izango du, haren edukia partzialki edo osorik zuzentzeko edo ezerezteko. Eskubide hori baliatzeko, idatziz eskatu beharko dio Bidasoa Atletiko Taldearen egoitza sozialari. (Ramón Iribarren kalea 4, behea, 20304 Irun).

Erakundeak beretzat gordetzen du erregelamendu honetan aldaketaren bat egiteko eskubidea, egoki irizten badiu, eta jendaurrean jakinarazi beharko du, bai probaren webgunean, bai izena emateko plataforman.

Maratoi erdia Real Federación Española de Atletismo-ren egutegi ofizialekoa da eta, izena ematean, korrikalariak berriaz baimentzen du bere datuak federazio horren Eguneko Lizentzia programari eta bertan parte hartzen duten enpresei lagatzea, euren sustapen-kanpainetarako.

Eguneko Lizentziaren titularitatea izateak bermatzen du korrikalaria proba honetan erantzukizun zibileko eta istripu-aseguruz estalita parte hartzen duela. Nolanahi ere, Datuen Babeserako Legeak ezartzen duen

bezala, interesdunak bere datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurka egiteko eskubideak baliatu ahal izango ditu, idatziz edo posta elektronikoz Real Federación Española de Atletismo-ra zuzenduta. Helbidea: Avda. de Valladolid, 81 – 28008 Madril.

Araudi honetan aurreikusi ez den guztia RFEA-ren eta World Athletics-en (Iraganean IAAF) 2023 denboraldirako Lehiaketa Arau Orokorren arabera arautuko da.

#### **16. ARTIKULUA- INFORMAZIO GRAFIKOA**

Ibilbideari, erantsitako guneei eta zerbitzuei buruzko informazio eguneratua, honako esteka honetan eskuragarri dago: [MAPA](#)